

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

377 positibo berri
14.775 positibo guztira* UCln EAEn

2.098 hildako EAEn

NAFARROAN

367 positibo berri
26.348 positibo guztira UCln Nafarroan

*HERNANIN 485 (+17), ASTIGARRAGAN 128 (+5)

(ENPS: UNESKO OPIKURRI)

Haize boladek zuhaitza bota zuten Hernaniko erdigunean, Lizeaga auzoan

111 irteera egin zituzten suhiltzaileek, gehienak zuhaitzak eta haizeak botatako bestelako objektuak erretiratzeko.

URUMEA EGURALDIA

Gipuzkoako foru suhiltzaileek 111 irteera egin behar izan dituzte astearteko gaua eta atzoko goizaren artean, lurraldea kolpatu duen haizete bortitzak eragin dituen ezbeharrei erantzuteko. Atlantikoko ekaitz gogor batek, Barbara izenez bataiatua izan dena, hegoaldeko haize gogorra eragin du Gipuzkoa osoan, batez ere barnealdean sentitu zen. Baita Nafarroako Iparraldean, Goizueta eta Aranon.

Zuhaitz zein bestelako objektu ugari bota zituen haizeak, Hernanin ikusi zen bezala. Lizeaga auzoan, esaterako, zuhaitza erori zen Larramendi kalean, Urumea ikastolaren ondoan. Sustraietatik atera zuen zuhaitza haizeak, baina zorionez, belardian geratu da, nahiz eta espaloi zati bat ere hartu zuen.



Lizeaga auzoan zuhaitza bota zuen lurrera haizeak.

Goizueta eta Hernani arteko errepidean, zuhaitza lurrera Urumea bailara osora zabaldu ziren zailtasunak. Goizueta inguruan, esaterako, zuhaitz ugari erori ziren gauean zehar, eta lanean jardun zuten suhiltzaile boluntarioek, errepidea eta baserrietarako bideak garbitzen.

Goizueta herritik Hernanirako errepidean, ordea, zailtasunak mantendu ziren goizean zehar zuhaitz haundi bat erori zelako, eta bidea oztopatzen zuelako. Kotxeak eta furgonetak

pasa zitezkeen, baina kamioiak ez. Errepideetako zerbitzuek kendu zuten egunean zehar.

Gertaera hauen eraginez, Gipuzkoako foru suhiltzaileentzat aurten irteera gehien egin behar izan dituzten gaua izan zen. Eider Mendoza Gobernantza diputatuak suhiltzaileek egindako lana goraipatu zuen: «Suhiltzaileak gure lehen erantzunera elementua dira ia edozein ezbeharren aurrean, eta beste behin ere argi geratu da foru zerbitzu honen garrantzia».

Gauean zehar, Gipuzkoako zortzi parketako suhiltzaileak aritu ziren lanean, eta koordinazio zentroko taldea indartu zen. Honela, eskualdeka, Oñatiko Zubillaga (26) eta Bidasoako (26) parkea izan ziren irteera gehien izan zituztenak. Gertakaririk larriena Orendainen jazo zen, kultur-etxean. Eraikin horretako azken solairuak kristalezko estalkia dauka eta haizeak lehenengo, kristalak apurtu eta, gero, solairu osoa eta estalkia bera errotik atera zituen. **K**

'En busca de Summerland' eta Zapatos rojos y 7 trolls', aste honetan Biteriko zine emanaldian

Helduentzako saioa bihar 22:30etan, eta larunbatean eta igandean 19:30etan eskainiko dira. Haurrentzako asteburuan, 16:30etan.

HERNANI ZINEA

Bihartik aurrera *En busca de Summerland* eta *Zapatos rojos y 7 trolls* filmak egongo dira ikusgai. Orduetegiak eta egunak mantendu egingo dira. Hone-

la, helduentzako saioa egongo da bihar ostiralean 22:30etan, larunbatean eta igandean eta astelehenean 16:30etan. Aste honetan aipaturiko *En busca de Summerland* eskainiko da.

Larunbatean eta igandean,

16:30etan, haurrentzako saioa egongo da, eta aste honetan *Zapatos rojos y 7 trolls* filma eskainiko da.

Neurri bereziak aretoan

Koronabirusa dela eta areto nagusirako ezarritako arauak bete beharko dira. Sarreretan eta irteeretan gel hidroalkoholikoa-ekin garbitu behar dira eskuak eta segurtasun-tarteak errespe-

tatu beharko dira, batez ere ilarrak sortzen badira.

Biteri kultur etxeko Aretoaren edukiera mugatua da, 136 ikusle gehienez, eta blokeatutako besaulkiak ezingo dira erabili.

Emanaldian zehar maskarilla jantzita izan beharko dute 6 urtetik gorakoek, eta, beraz, ezin da ez jan ezta edan ere filmak irauten duen bitartean. **K**

Gabonetako loteriak salgai

HERNANI ZOZKETA

Elkarte desberdinak hasi dira euren Gabonetako loteriak saltzen. EAJ-PNVrena Orkolaga 19ko egoitzan erosi daiteke astelehene ostegunera 17:00etatik 19:00etara. Xalaparta Elkartearen zenbakia ere salgai dago Lete administrazioan. Berriak elkartearena Kardaberazeko egoitzan lortu daiteke.

Bigarren saioa etxea definitzeko

ASTIGARRAGA BERDINTASUNA

Udalaren Berdintasun sailak, «Astigarragan emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko baldintza egokiak ezarri eta sustatzea» du helburu eta saioak ari da antolatzen Emakumeen Etxea definitzeko. Gaur, ostegunean, egingo da bigarrena 18:00etatik 20:00etara kultur etxe zaharrean.

Larramendi gaur hizlari, historiaz

HERNANI ERROTZEN

Hernani Errotzenek antolatutako udazkeneko hitzaldi zikloaren baitan, gaur Iñigo Larramendi izango da hizlari, arratsaldeko 19:30etan, Biterin. Larramendi izango da udazkeneko zikloko hitzaldiei hasiera emango diena, *Nafarroa euskal estatua. Baina... zer dela eta, Erdi Aroko kontu bat 2020an?* gaia jorratuz. Musukoak eman behar dira.

Gaztelekutik gaur Donostiara

HERNANI GAZTELEKUA

Gaztelekuak *Street Scape Room* antolatu du, gaur. Donostiatik barrena 2 ordu izango dituzte pistak argitu eta *La leyenda del mercader*-en misterioa argitzeko. Horretarako, tablet bat, material ezberdinez betetako motxila bat... utziko dizkiete.

MARI FE
ARRANDEGIA
NAGUSIA 36 943 550 489

Tripontzi jatetxea
PINTXOAK
RAZIOAK
ENTZALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOA
ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

AKELENEA
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian
Koldo eta Ana
Astelehene ostiralera
eguerdian irekita,
larunbatetan
eguerdi eta gauean.
Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333



GAUR Ostarteak agertuko dira baina arratsaldean giroak kaskartzera egingo du. Hego-haizeak jarraituko du eta tenperaturaren ez da aldaketa handirik nabaritu.
Min.16° / Max.24°



BIHAR Tenperatura jaitsi egingo da eta iparraldean euria egingo du. Hego-mendebaldeko haizearekin eta ostarte batzuekin hasiko da eguna, baina eguerdi aldera, haizeak ipar-mendebaldera egingo du. **Min.13° / Max.19°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Estatu espainiarreko garagardogile onenak berriz ere Hernanin

Basqueland Brewing izendatu berri dute Bartzelonan garaile garagardogile onenaren sarian 2017an eta 2019an gertatu bezala.



Garagardogile onenaren saria jasotzen duen garagardotegi hernaniarrak.

HERNANI GARAGARDOA

Spainiaiko Garagardo Txapelketak argi utzi du, Hernanin kokatuta dagoen Basqueland Brewing garagardogileak Estatu onenak direla garagardoa egiten. Pasa den asteburuan hirugarren urtez garagardogile onenaren saria irabazi zuten.

Sei edizio ospatu dira eta sei-

tik hirutan garaipena lortu dute hernaniarrak; 2017an, 2019an eta 2020an. Txapelketa klasikoak garagardo bakoitza ebaluatzen du, ordezkatzeko duen estilorekiko leialtasunaren arabera. Bartzelonan egindako ekitaldiaren ardatza lan ona aitortzea izan zen. Epaileren dastaketaren

ondoren, Basqueland Brewing izan zen titulua eskuratu zuena La Pirata Brewing (Suria, Bartzelona) eta Reptilian Brewery (El Vendrell, Tarragona) ekoizleen aurretik. Hernaniarrak hainbat kategoriatan irabazi zuten urrea. Horrek balio izan zien hobereenak izendatzea. **K**

Musikak Euskadiko kostaldetik bidaia proposatzen die entzuleei

Kostaldekoko soinuak emanaldia bihar, 19:30etatik aurrera Biterin; Juan Mari Beltran, Errege Belda, Ander Barrenetxea eta Aitor Gabilondorekin.

HERNANI MUSIKA

Kostaldekoko Soinuak diskoaren doinuak Biterin entzungo dira bihar, ostiralean, 19:30etatik aurrera, San Joan Konpartsak antolatuta. Juan Mari Beltran musikari eta ikertzaileak, Ander Barrenetxea eta Errege Belda musikari hernaniarrak eta Ai-

tor Gabilondo musikari eta aktore errenteriarrek, diskoaren 16 abestietan zehar, bidai bat proposatuko diete hernaniarrei Euskal Herriko kostaldean barrera Lapurditik Bizkaira, Gipuzkoatik pasata.

Proiektuak Hernaniarekin lotura handia du; Juan Mari Beltran urte askotan Hernaniko

Musika Eskolan irakasle aritu zen, eta Ander Barrenetxea eta Errege Belda musikari hernaniarrak dira. «Hirurok urtetan Hernani Musika Eskolakoak» gogoratzen du Juan Marik.

Orain Hernanin emango dute kontzertua eta herriarekin duten lotura hori nolako den azaltzen du Juan Mari Beltrane. «Ander ikasle izandakoa eta ondoren irakasle ere bai beste lekuetan. Errege nirekin hasi zen dultzaina ikasten, gero akordeoiarekin hasi zen». **K**

Kontuz ura iragazteko gailuen etxez etxe salmentaren balizko iruzurrarekin

Iturriko uraren kalitatea bermatuta dago eta praktika horien biktima izan direnek erreklamazio bat aurkez dezakete Kontsumobideren bidez.

URUMEA AÑARBE

Añarbeko Urak-ek jakin du iruzur bat gertatzen ari dela ura arazteko iragazkiak edo ekipoak etxez etxe saltzeari dagokionez, iturriko uraren ustezko osasun-garritasun-arazoak argudiatuta. Añarbek gezurtatu egin nahi ditu uraren kalitatearen arazo faltsu horiek.

Bereziki adineko pertsonen zuzendutako bisita horietan zalantzan jartzen da iturriko

uraren kalitatea eta osasun-garritasuna, eta ustezko arazoak konpontzeko gailu bat jartzea eskaintzen da.

Dirudienek, erabiltzaileak telefono dei bat jasotzen du bere etxezko uraren kalitatea aztertzeko hitzordua eskaintzen, edo zuzenean etxebizitzara sartzen saiatzen dira, etxezko atean agertuz. Behin etxe barruan, ustezko teknikariak zenbait proba engainagarri eta trikimailu kimiko egiten ditu, erabiltzailea kon-

bentzitzeko iturriko ura edateak duen arriskua eta, ondorioz, iragazteko ekipo batzuk instalatzeko beharraz.

Ekipo horien instalazio eta mantentze-kostua milaka eurokoa izan daiteke.

Añarbek ez du zerikusirik bisita horiekin, eta iruzur horren aurrean kontuz ibiltzea gomendatzen zaie herritarrei. Erreklamazioa jar dezakete Kontsumobideren webgunean edo dagokion kontsumo-bulegoan: praktika horien edo antzekoen biktima izan direnek; itzuli nahi duten produktu bat etxean erosi dutenek, baldin eta enpresak atzera egitea onartzen ez badie. **K**

Ramón Garcíaren hitzaldia gaur Biterin eta erakusketa bihar arte ikusgai

HERNANI SAN JOAN KONPARTSA

Urteroko zitak martxan ditu Hernaniko San Joan Konpartsak. Honela Euskal jantziei buruzko erakusketa asteleheneetik bihar arte dago ikusgai Biteri kultur etxean, 17:00etatik 19:30etara. Bertan, 20garren mendeko lehen hamarkadetakoko jantziak erakutsiko dira, eta aipatu dute garai hartan zenbait epidemia egon zirela kontuan hartuta, «musuko ezberdinak erabili zirela ikusi ahal izango da». Bestetik, gaur Ramón Garcíak, hitzaldia eskainiko du, arratsaldeko 18:30etan hasita. Erakusketan bertan egingo da.

Aurrekontu partehartzaileen inguruko bilera gaur Santiomendi ekialdean

ASTIGARRAGA UDALA

Aurrekontu partehartzaileen prozesuan bilerak egiten ari dira astean zehar Astigarragako auzo eta leku desberdinetan. Gaur, Santiomendi ekialdean, Ermaña aurrean, 18:30etatik 20:00etara izango da saioa. Azken aurreko bilera Udaletxeko plazan izango da, bihar, ostirala, 16:00etatik 17:30etara bitartean. Eta azken saioa urriaren 26an egingo da, Oialumen, Auzobiltokiaren aurrean, 18:30etatik 20:00etara. Aurrekontuetan partehartu nahi dutenek, Udalaren webgunera idatzita azaldu ditzakete beraien ideiak. Edo, bestela, zuzenean <https://www.astigarraga.eus/eu/bidali-mezua> estekan sartu eta iritzia, ekarpen, proposamen edo kezak idatzi daitezke. Horretarako, datu batzuk bete behar dira lehenik.

Sahara enpresa transnasionalek nola espoliatzen duten erakutsiko da gaur

ASTIGARRAGA SAHARA

Fátima Elgalia Bidalla-k, aktibista saharauiak, Europako enpresek Saharar lurraldearenganako espolioaren berri emango du, gaur, 19:00etan, Biterin. Egoera horren aurrean komunitate saharauiak duen borroka antolaketa nolako den kontatuko du. Zehazki, emakumeek, subjektu politiko gisa, Saharar herriaren giza eskubideen alde zein paper jokatzeko duten azalduko du. Bestetik, Andoni Lubakiren *Expolio y ocupación documental* ikusteko aukera izango da.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† MARIA SALABERRIA SALABERRIA

(Gabino Lekuona Astibiaren alarguna)

Atzo hil zen, 98 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian bego -

Seme-alabak: Juan Antonio eta Maribel, Jesus eta Juana Mari, Itziar eta Jose Ignacio, Miel Joxe eta Marian; bilobak: Eneko eta Marijose, Olaia eta Zigor, Aitziber eta Joseba, Iñigo eta Ane, Beñat, Loinaz eta Asier; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak, gainerako ahaideek eta zaintzaileak: Jesica Mayorga.



Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **BIHAR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, GOIZUETAKO AMA BIRJINA JASOKUNDEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Goizuetan, 2020ko urriaren 22an

OHARRA: Gorputza REKALDE AUZOKO VASCONGADA EHORKETA TANATORIOAN egongo da GAUR 10:00 - 13:30 eta 15:30 - 20:00. BIHAR goizeko 11:00ak arte.

IRAGARKI MERKEAK

Hernaniko okindegi batean euskaraz dakien saltzaile bat behar dugu dendarako, jardunaldi osoan. Deitu goizez 609543900ra 10etatik 14tara.

Errioguardan eramateko menua. GAUR: Pistoia rebueltoan - Oilasko (label) erea patata frititu eta leixugarekin - Sagar tarta. BIHAR: Barazki menestra - Oilar xerrak frituitua ilmoi saltsarekin - "Petit chou" ak kremaz beteak. **10,5 €**.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)